

	<p style="text-align: center;"><b>Samaniego B.H.I. - Guardia</b></p> <p style="text-align: center;"><b>Euskara mintegia</b></p> <p style="text-align: center;"><b>Ebaluazio tresna eta kalifikazio irizpideak</b></p>	<p style="text-align: center;"><b>2021-2022</b></p> <p style="text-align: center;"><b>Ikasturtea</b></p>
---	---	--

### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

<b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [evaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<b>AZTERKETAK</b>	<p><b>%40</b></p> <p>Ebaluazio bakoitzean bi azterketa egingo dira gutxienez.</p> <p>Azterketetan lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 3 izango da batez bestekoa egin ahal izateko.</p>
<b>BESTELAKO LANAK:</b> Idazlanak, ahozko aurkezpenak, talde zein bakarkako lanak, etab. Gaitasunak oro har.	<p><b>%40</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ahozkoaren ulermena % 10</li> <li>● Ahozko adierazpena %10</li> <li>● Idatzizkoaren ulermena %10</li> <li>● Idatzizko adierazpena %10</li> </ul> <p><b>Oharra:</b> Gaitasunen bateko proba burutu ezean, gaitasun horri dagokion ehunekoak beste gaitasunen artean banatuko da. Kontuan izango dugu ebaluaketa bakoitzean gutxienez testu bat (bai ahoz – power-point baten laguntzaz nahi badute-, bai idatziz) sortu beharko dutela eta liburu bat irakurriko dugula klasean. Gero, ulertu egin dutela ziurtatzeko, galdetegi bat izango dute.</p> <p>Ondo egiteak suposatuko du gutxienez 10 galderetatik 8 ondo erantzutea. Ikasleek ebaluaketako nota igotzeko aukera izango dute liburuak euren kabuz irakurtzen badituzte; Hau da, liburu bat irakurtzeagatik nota 0,25 puntutan igoko zaie gehienez 2 puntu lortu arte (8 liburu irakurrita). Benetan liburuak irakurri</p>

	dituztela ziurtatzeko galdetegi bat, liburuaren laburpena edota liburuaren inguruko iritzi landua eskatuko zaie.
<b>JARRERA: Euskararen erabilera, etxerako lana, gelako lana, etab.</b>	<p><b>%20</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● %10 interesa, parte hartzea...</li> <li>● %10 etxerako lanak</li> </ul> <p>Klasean jarrera desegokia izateak (gehienetan euskaraz ez hitz egiteak, irakaslearen nahiz ikaskideen azalpenak errespetuz ez jarraitzeak, edonori mingarriak gerta dakizkiokeen komentarioak egiteak edota etxerako lana ez egiteak) 0,1 puntu kentzea ekarriko du. Atal honetan puntuazio osoa galtzekotan ebaluazioa ez da gaindituztat <u>emango</u>.</p>

## CURRICULUM ANIZTASUNA

Ikasleek lortu ahal izango duten notarik gorena 10 izango da, bikain kalifikazioarekin. Nahikoa 5 bateik lortuko da eta gutxieneko nota 1 izango da.

Hiru hilabeteko hiru ebaluazio egingo dira eta amaierako kalifikazio bat; azken hau hiru noten batezbesteko aritmetikoaren emaitza izango da. Gizarte eta Hizkuntza Eremua osatzen duten ikasgaien nota proportzionalki aterako da, eta horretarako gutxienez 3 puntu eduki beharko dira kalkulua egin eta Eremuaren kalifikazioa osatu ahal izateko. Ikasgaia hiruhilekoka gainditu ezean, ikasturte amaieran Ohiko Azterketa egin ahal izango du ikasleak.

Gizarte eta Hizkuntza Eremua honela eratuta dago:

- Gizarte Zientziak eta Gaztelania: 7 ordu (%46,66)
- Euskara: 4 ordu (%26,66)
- Ingelesa: 4 ordu (%26,66)

Nota emandako orduak hainbanatuta aterako da.

## BATXILERGOA

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p><b>AZTERKETAK</b></p> <p><b>IRAKUR LIBURUA (azterketa)</b></p>	<p><b>%40</b></p> <p>Ebaluazio bakoitzean bi azterketa egingo dira gutxienez.</p> <p>Azterketetan lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 3 izango da batez bestekoa egin ahal izateko.</p> <p><b>%10</b> (3. ebaluazioan ez da libururik irakurriko, beraz %50ko balioa emango zaie azterketei)</p>
<p><b>BESTELAKO LANAK: Idazlanak, ahozko aurkezpenak, talde zein bakarkako lanak, etab. Gaitasunak oro har.</b></p>	<p><b>%40</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ahozkoaren ulermena % 10</li> <li>● Ahozko adierazpena %10</li> <li>● Idatzizkoaren ulermena %10</li> <li>● Idatzizko adierazpena %10</li> </ul> <p><b>Oharra:</b> Gaitasunen bateko proba burutu ezean, gaitasun horri dagokion ehunekoa beste gaitasunen artean banatuko da.</p>
<p><b>JARRERA: Euskararen erabilera, etxerako lana, gelako lana, etab.</b></p>	<p><b>%10</b></p> <p>Klasean jarrera desegokia izateak (gehienetan euskaraz ez hitz egiteak, irakaslearen nahiz ikaskideen azalpenak errespetuz ez jarraitzeak, edonori mingarriak gerta dakizkioken komentarioak egiteak edota etxerako lana ez egiteak) 0,1 puntu kentzea ekarriko du. Atal honetan puntu osoa galtzekotan ebaluazioa ez da gaituztat emango.</p>

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errehabilitazio-sistema...].

**Ez da berreskurapen sistemarik erabiliko, ebaluazio jarraia baita.** Alegia, ebaluazioren bat gainditzen bada, aurrekoa berreskuratutzat emango da; hala eta guztiz ere, gaindituko ez balitz kurtsoaren bukaeran, ohiko (DBHn) eta ezohiko (Batxilergoan) azterketan ikasgaiaren berreskurapena egiteko aukera izango da. Deialdi honetan gainditzekotan, **emaitza beti ere 5 izango da.**

**Nota borobiltzea:** 1., 2. eta 3. ebaluazioetan 0,7tik gora.

Aurreko kurtsoko **gaindikizuna** berreskuratzeko ikasturtean zehar aparteko jarraipena eta deialdiak egingo dira:

- 1- Ikasturteko **lehen ebaluazioa gaindituz gero**, gainditutzat joko da aurreko ikasturtekoa.
- 2- **Lehen ebaluazioa gainditu ezean, bigarren ebaluazioan** izango da hurrengo aukera.
- 3- **Otsailekoan huts eginez gero, ekaineko ohiko (DBHn) eta ezohiko (Batxilergoan) deialdian** azterketarekin batera, lan bat ere eskatuko da.

#### ETXEALDIRA EGOKITUTAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Azken kalifikazio edo emaitzak irizpide hauen arabera izango dira:

**Gutxiegi (5 baino gutxiago):** 1. eta/edo 2. ebaluazioan edo bietan ez bada ikasgaia gainditu, eta ezta berreskuratzea ere hirugarrenean (fase ez-presentzian).

**Nahikoa (5):** Aurrez aurrekoa ez den aldi horretan errekeratutako lehen bi ebaluazioak, 1. eta 2. ebaluazioetan onartutako gutxienekoak izanik, errekeratu badira, eta hauek aurretik gaindituta, fase ez-presentzian agindutako jarduerak egin ez badira.

**Bikain (6-10):** Lehen bi ebaluazioak gainditu edo berreskuratu dira, eta, gainera, hirugarren ebaluazioari dagozkion jarduerak arrakastaz gainditu dira.

Beraz, eta adierazitako azken egoera honetan dauden ikasleek, **azkeneko emaitza** ondoko irizpideen arabera eskuratuko dute:

Ebaluazio jarraia izanik eta 1. eta 2. ebaluazioari dagozkion emaitzak aurrez-aurrekoa izan den aldi normaltasun egoeran gauzatu direnez, ondoren zehaztutako ehuneko balioek 2. ebaluazioari ematen diogun erabateko garrantzia adierazten dute. Horrela, eskuratutako emaitzen arabera, ondoko balioek zehaztuko dute azken emaitza edo kalifikazioa:

<b>1. DBH eta 2. DBH MAILAK</b>	<b>3.DBH, 4. DBH eta 1. eta 2. DBHO MAILAK</b>
---------------------------------	--

1. ebaluazioa: %30	1. ebaluazioa: %40
2. ebaluazioa: %50	2. ebaluazioa: %50
3. ebaluazioa: %20	3. ebaluazioa: %10

### IRAKURKETA PLANA

#### BATXILERGOA

Eskola orduetan irakur liburuen irakurketa egiteko teknika ezberdinak erabiliko dira, hala nola, partekatua, bikoteka, bideratua... Ondoren, galdetegia egingo dute. Honek izango duen balioa **puntu batekoa** izango da.

#### DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Eskola orduetan irakur liburuen irakurketa egiteko teknika ezberdinak erabiliko dira, hala nola, partekatua, bikoteka, bideratua... Ondoren, proposatutako lana egingo dute. Honek izango duen balioa **puntu batekoa** izango da.

Era berean, ikasleek ebaluaketako nota igotzeko aukera izango dute liburuak euren kabuz irakurtzen badituzte; hau da, liburu bat irakurtzeagatik **nota 0,25 puntutan igoko zaie gehienez 2 puntu lortu arte (8 liburu irakurrita)**. Benetan liburuak irakurri dituztela ziurtatzeko galdetegi bat, liburuaren laburpena edota liburuaren inguruko iritzi landua eskatuko zaie.